

IKUSMIRAN AZTERKETA

Etxe barruan ezkututzen dena

*Etxeko langileen errealitatea
Euskal Herrian*

MONOGRAFIKOA • 2020KO MAIATZA

Etxe barruan ezkututzen dena

Etxeko langileen errealitatea Euskal Herrian

Aurkibidea

ETXE BARRUAN EZKUTATZEN DENA.....	5
IPAR EUSKAL HERRIA	9
ETXEKO LANGILEEN ARAUKETA.....	9
LAN BALDINTZAK	9
- Laneko kontratua.....	9
- Ordainsaria.....	9
- Jardunaldia.....	9
- Langabezia prestazioa.....	9
Kaleratzeak eta kalteordainak.....	9
- Atsedanak.....	10
- Gaueko lana.....	10
- Ostatua.....	10
- Osasun arreta.....	10
- Adin txikikoak.....	10
- Etxe batetik besterako denbora.....	11
CESU (CHÈQUE DOMICILE UNIVERSAL – ETXEKO TXEKE OROKORRA).....	11
- Zer eskaintzen du CESU zerbitzuak?.....	11
HEGO EUSKAL HERRIA	12
Emakumeak eta migranteak.....	12
Etxeko langileen arauketa.....	12
LAN BALDINTZAK	13
- Lan kontratua.....	13
- Ordainsaria.....	13
- Kotizazioa. Tarteak eta hutsuneak.....	14
- Langabezia prestazioa.....	14
- Kaleratzeko arrazoiak eta indemnitazioen kopuruak.....	14
- Laneko jardunaldia.....	15
- Atsedanak.....	15
- Gaua pasatzeko erregimena.....	15
- Lan ikuskaritzaren jarduna.....	16
- Lan osasuna eta laneko segurtasuna.....	16
ENPLEGU AGENTZIA PRIBATUAK.....	17
ABUSUAK ETA INDARKERIA.....	17
SEXU JAZARPENA.....	19
ATZERRITARTASUN LEGEA.....	20
KONFINAMENDU EGOERAREN ONDORIOAK.....	21
HITZARMEN BATEN BEHARRA GERO ETA AGERIKOAGOA	22

Zor historikoak zeharkatzen gaitu, pentsamendu kolonialak eta patriarkalak sindikalismoa egiterakoan urte luzez baldintzatu gaitu. Ikusezinak, ez daudenak, urte hauetan ez-ikusiarena egin dugu. Sindikatu gisa ez dugu haien egoera prekarioa jorratu, ez ditugu kolektibo gisa ulertu, subjektu politiko gisa, langile indibidual eta problematika indibidual gisa ikusi izan ditugu. Historikoki jakin izan dugu Euskal Herrian borroka arlo kolektibotik egiten dela, herria dela subjektu nagusia herri askapenerako. Feminismotik jakin genuen iraultzaren beste faktore giltzarri bat interseksionalitatea zela, eta ikuspegi horretatik hasi ginen ulertzen badaudela hainbat zapalkuntzek zeharkatutako kolektiboak, eta etorkizun bateratua idazten hasi behar dugula, funtsezko subjektuak direla, eta ikusgarritasuna eta balio politikoa ematea ezinbestekoa dela.

Hala onartu genuen LABeko azken kongresuan, Birpentsatzen prozesuan bazterreko langileak, erdigunean kokatzeko hautua egin genuen. Paper zuriaren gainean idazten hasi ginen, etxeko langileekin elkarlana eta saretzea ezinbestekoa dela aldarrikatu genuen. Orain arte modu indibidualean jasotzen genituen etxeko langileak eta, egun, ikasi dugu arazo kolektibo gisa ulertu behar direla; sistema kapitalista, arrazista eta kolonialaren prekariedade sintoma gisa. Sindikatuaren barruan lekua eta ahotsa ematea erabaki genuen, sindikatu barruan jada antolatutako gainerako sektoreekin alderatuz guztiz desberdina baita.

Aurrean duzuen ikerketa honetan etxeko langileen lan eta bizi baldintzak aztertzen dira. Kontzientziaziorako tresna gisa ulertu behar dugu, hurbilpen bat, gure borrokan eta aldarrikapenetan leku bat emateko tresna. Gure ingurua aditu behar dugu, geure etxeetan, gure atari, kale eta herrietan. Ikusten ditugun emakume horiek gure ahoak diskurtsoz betetzen dituen klase esplotatu horren parte dira. Ezkertiar bezala haizatzen duguna, independentistak bezala, iraultzaileak bezala, langile klase bezala, bidea ezin da egin beste batzuk esplotatuz, denak ala inor ez. Prekarietateari heldu behar diogu, langile horien zapalkuntzei sindikalismotik, ezkerretik, feminismitik, interseksionalitatetik aurre egin behar diegu. Inoiz ez asistentzialismotik eta paternalismotik.

Etxeko langileak subjektu politiko eta borroka-subjektu gisa ulertzeko gai ez garen bitartean, kapitala erreproduzitzen jarraituko dugu, patriarkatua, gure zurtasunaren preso izango gara. Langile horiek existitzen dira, Euskal Herrian daude, gure familien eta ingurukoen bizitzak eusten dituzte, zaintzen dute, emakumeak dira, migratuak dira, prekarioak dira. Gure borrokaren parte ez badira, huts egin dugu, ezkertiar, independentista eta feminista bezala.

LAB sindikatuko
Idazkaritza Feminista

2020ko maiatza

ETXE BARRUAN EZKUTATZEN DENA

Euskal Herriko langile kolektibo prekarioenen artean dugu etxeko langileena. Ikusmiran Azterketa honetan begirada espezifikoki horiengan jarri nahi izan dugu errealitate hau lehen planora ekartzen laguntzeko. Jakina da, espainiar estatuan enplegu erregimen berezia ezarria izan dutela ziklo historiko honetan guztian eta, halaber, sindikatuen xedea erregimen orokorreko soldatapeko langileengan egon dela. Hamarkadetan sistemaren amarru horrek babesgabeko egoera hau luzatu eta gogortu du.

LAB sindikatuak, sindikalismoaren eginkizuna eta erantzukizuna eguneratzeko eta sindikalismoa bere osotasunean birpentsatzeko hamarkada honetan egin duen lanaren barnean, egoera honi aurre egiteko eta gure ardua sindikalak esparru horretara hedatzeko erabakia hartu zuen. Eta erabaki irmo hori, 2017ko Biltzar Nagusiaz geroztik, ekintza sindikal propio bat bilakatu da. Bide horretan, aipa dezakegu, adibide garrantzitsu gisa, etxeko langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko urratsak ematea premiazkoa dela, eta horregatik proposatu dugula EAerako etxeko langileentzat lan hitzarmena. Halaber, gure jardun sindikala urte hauetan guztietan etxeko langileek garatu duten antolakuntza egitura propioekin lankidetzan egiten ari gara, eta egingo dugu aurrerantzean ere.

Esku artean duzun azterketa txostenean Hego Euskal Herriko etxeko langileen egoera, lan baldintzak eta jasaten duten indarkeria eta diskriminazio oro jasotzen saiatu gara. Emakumeak, migranteak, arrazializatuak... zapalkuntzaz zapalkuntza eraikitako subjektu batez aritu gara, euren eguneroko lan indarrarekin Hego Euskal Herriko zaintzaren antolakuntzaren oinarritzko zutabe bihurtu direnei buruz. Zaintza eta bizitzak erdigunean kokatu behar dituen jendarte bat eraikitzeko lanean ari gara, eta zinez uste dugu eurekiko daukagun zor historikoa onartzeko eta erreparatzeko garaia dela. Esan gabe doa, azterketa honen mami nagusia COVID-19ak sortu duen krisiaren aurrekoa bada ere, aipatu krisiak langile horiek garatzen duten ekinbide profesionalaren ezinbestekotasuna eta balio sozial eta ekonomikoa azpimarratu besterik ez duela egin. Era berean, krisi honek langile horiengan eduki ditzakeen enplegu ondorioak ikusteke daude.

Azterketa hau, egoera zehatz batetik abiatu dugu:

- **Hego Euskal Herrian 46300 etxeko langile inguruk lan egiten dute.** Ez ditugu datu zehatzak, izan ere, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) publiko eginiko datuen arabera, Espainiar Estatuko etxeko langileen % 30ak ezkutuko ekonomian egiten du lan. Gaur egun, Hego Euskal Herrian etxeko langileen erregimenean altan dauden kopurua 35600 langilekoa da (28500 EAEn eta 7100 Nafarroan) eta estimazio bat eginez 46300 etxeko langilera hurbilduko ginateke Hego Euskal Herrian.
- Ipar Euskal Herrian ez dugu izan bertako etxeko langileen kopuruetara hurbiltzeko modurik. Salagarria da, honetan ere, Euskal Elkargoaren sorrerarekin euskal herrien aitortzarako lehen urratsa egin bazen ere, Euskal Herriaren errealitatea aztertzeko datu propioen eta gure errealitate nazionalaren ezagutza eraikitzeko lanabesen eskasia. Euskal errealitatea ezkutaturik da, frantses errealitatean desagertua. Lan honek hutsunea du esparru horretan, ezin izan baitu zulo ofizial hori bete.
- Euskal Herria hiru errealitate administratibo desberdinen artean dago zatituta. Oraingoan, Iparralde eta Hegoaldearen arteko bereizketa egin dugu, etxeko langileen egoera oso desberdina delako banaketa horren arabera.

LEKUKOTZAK

Txostena osatu ahal izateko, ezinbestekoa izan da etxeko langile gisa lanean diharduten edo lanean aritu izan direnen testigantzak jaso ahal izatea, baita etxeko langileen eskubideen alde diharduten kolektiboetako kideenak ere.

Ondorengo pertsonak eman dizkigute euren lekukotzak. Gehienak egiazko izenak badira ere, badaude euren burua izengoitiarekin azaldu nahi izan dutenak:



Almudena Escalona
Etxeko langilea. Kanpoko gisa lanean. Orduka egiten du lan.



Claire Legardinier
Etxeko langilea. CESU sistemaren bidez lan egiten du etxe desberdinetan.



Itziar Varela
Etxeko langile ohia. Kanpoko gisa lan egiten zuen.



Luz
Etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren gaur egun orduka egiten du lan kanpoan



Liz Quintana
'Trabajadoras No Domesticadas' Kolektiboko kidea.



Lucia
Etxeko langilea. Orduka lan egiten du kanpoan. Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko kidea.



Kari
Etxeko langilea. Orduka lan egiten du kanpoan. Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko kidea.



Rosa
Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan.



Josefina Roco Sanfilipo, 'Txefi'
'Trabajadoras No Domesticadas' kolektiboko kidea eta MunduBat Fundazioko ekonomia feminista ildoaren koordinatzailea.

ONDORIO NAGUSIAK

Hauek dira gure ustetan azpimarratu beharreko ondorio nagusiak:

1. Etxeko langileen errealitatea hain da irregularra, ezin baitugula zehazki jakin zein den bizi duten egoera.

Hasteko, Iparraldean ez dugu etxeko langile moduan altan dauden langileen daturik, benetako datuak izateko zailtasun izugarriak ditugu.

Gainera, Nazioarteko Laneko Erakundeak Espainiar eta Frantses Estatuan ezkutuko ekonomian lan egiten duten etxeko langileak % 30 direla estimatzen du. Beraz, langile horien errealitatea ere jaso gabe dago estatistika ofizialetan.

Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartek (ATH-ELE) urtero euren eginiko kontsulten inguruko estatistikak publiko egiten ditu. Errealitatera pixka bat hurbildu ahal izateko estatistika horiek ekarri ditugu txostenera.

Irregularitasun hori zapalkuntza bihurtzen da. Inon agertzen ez diren langileak dira, ikusezin bihurturik lan egiten dute eta, ondorioz, zaugarriagoak dira. Zaurgarritasunak babesgabetasunera kondentzen ditu, kontratatzen dituzten familien menpe daude erabat. Ez dezagun ahaztu sektore hori ez dagoela sindikatuta, lantokia etxea dela, eta, beraz, ez dagoela patronalaren profirik, ez ordezkarik, ez eta beren eskubideak defendatzeko komiterik ere; bakarrik daude.

Errealitatea hau izanik eta sindikatuak euren antolakuntzarako tresna izatetik urrun egon badira ere, etxeko langileek zailtasunei aurre egin eta historikoki euren artean saretu eta antolatzeke gaitasuna erakutsi digute.
2. Etxeko langileak bigarren mailako langile moduan kontsideratzen dira lan baldintzei dagokienez, eta laneko zein bestelako oinarriko eskubideak urratzen zaizkie modu estruktural batean.

Hegoaldean zein Iparraldean gutxieneko soldata jasotzen dute jardunaldi altuenarekin, orduka lan egiten duten langile prekarioak edota jardunaldi amaigabeekin lan egiten duten langileak topatuko ditugu.

Etxeko langileen % 30ak ezkutuko ekonomian lan egiten du. Gainera, laneko eta bestelako oinarriko eskubideak urratzen zaizkie egun: jasaten duten indarkeria maila oso altua da.

Langabezia eskubiderik ez dute Hegoaldean, bai ordea Iparraldean.

Azpimarratzekoa da Hegoaldean ez zaiela langileen estatutua aplikatzen, lan baldintzak mugatzen eta prekarizatzen dizkien erregimen berezia dute. Eta, hala ere, erregimen hori egon arren, gehienetan ez da betetzen. Beraz, merkantzia bihurtzen dira, kontratatzeke errazak eta esplotatzeko errazak. Legediak berak erraztu egiten du emakume horien esplotazioa. Askok ez dute paperik, eta hori isiltasunera, beldurrera eta ez salatzea kondentzen ditu.

Profil hori duten langileengan oso erraz gertatzen da eskubide urraketa eta estrukturala da. Ez da kasu isolatu bat, eskubide urraketa, indarkeria eta zapalkuntza orokorra da Euskal Herrian, beraz, kolektiboki eta politikoki jorratu behar den gaia da.
3. Etxeko langileak, gehiengo batean, emakumeak eta migranteak dira. Bizi duten babesgabetasun egoeratik, oso lan baldintza kaskarrak ezartzeko baliatzen diren langileen kolektiboa.

Emakumeak direlako lan baldintza kaskarragoak ezartzen zaizkie, eta lpar zein Hegoaldean emakumeak dira etxeko langile gehienak. Emakume eta gizonen arteko soldata arrakala ukalezina da eta beraz LABek gai horri behar duen eduki politikoa eman dio.

Hegoaldean migranteen tasa oso altua da, barneko langileen artean % 99a. Emakume migrante askorentzat lanean hasteko modurik bakarrenetakoa da. Eta emakume migratuak izateagatik baldintza are okerragoak dituzte. Kasuak kasu, emakume migranteen kasua odoltsua da, arrazakeria, kolonialismoa, patriarkatua eta kapitalismo basatia pairatzen dituzten langileak dira.

Lan baldintza kaskarrak ez dira babesgabetasunaren ondorio, aldagai garrantzitsuenak eta haien egoera baldintzatzen dituenak emakumeak eta migratuak izatea da.
4. Osasun krisiak bereziki eragin die etxeko langileei. Babesgabetasun egoerak eta kasu askotan irregularki egoteak, gero eta gehiago estutzeko edo bat-batean, besterik gabe, kaleratuak izateko arriskuan jartzen ditu.

Egoera larriak topatu ditugu: lan harremana eten diete, kaleratuak kalteordainik gabe, opor behartuak, lanean jarraitu dutenak enplegatailearen etxetik ezin atera, lan jardunaldi amaigabeak, euren senideak zaintzeko arazoekin, laneko segurtasunaren bermerik gabe lanean...

5. Pertsonak eta zaintza erdigunean kokatuko dituen jendarte eredia eraikitzea da bidea. Egun indarrean dagoen ereduak emakume horiek lan eta bizi baldintza esklabuetara kondentzen ditu.

Kapitalismoak zaintza merkantilizatu egiten du, zaintzaileen lanari balioa ematen dio eta zaindutako pertsonen prezioa ezartzen die. Kapitalak, berriz ere, bizitzari irabazi dio. Bizitzak erdigunean jartzen baditugu, kapitalak eraikitako sistema zalantzan jarri behar dugu. Zaintza lanak ez dira merkantzia, zaintza lanek bizitzari eusten diote, zaintza lanak beharrezkoak dira, baina kapitalarentzat negozioa baino ez dira. Zaintza pribatizatzea tresna ezin hobea da emakume migratuak esplotatzeko eta etekinak lortzeko.

Pertsonen zaintza eta zaintzaileen lan eta bizi baldintzak erdigunean jartzea premiazkoa da. Ezin dugu beste alde batera begiratu. Zaintza zentroan jartzeak sistema birpentsatzera behartzen du, bizi garen ustezko ongizate-sistema berreraikitza.

Etxeko langileentzat sindikalismoa tresna eraginkorra izatea lortu behar dugu, euren lan eta bizi baldintzak hobetzeko tresna. Bide horretan, lehen urrats moduan EAerako etxeko langileen hitzarmen kolektiboa proposatzen dugu.

IPAR EUSKAL HERRIA

Etxeko langileen gehiengo handia emazteak dira. Sektore feminizatua eta prekarizatua dugu etxeko langileena. Frantses Estatuan orduka lan egiten duten etxeko langileen egoera erregularizatu asmoz Chèque Domicile Universal (CESU) sortu arren, Nazioarteko Lanaren Erakundeak Gizarte Segurantzari altan eman gabe dauden etxeko langileen ehunekoa % 30ekoa dela estimatzen du.

ETXEKO LANGILEEN ARAUKETA

Frantzia osorako den legedia da Iparraldeko etxeko langileentzat aplikagarri. Frantziako Laneko Kodigoa eta '1999ko Azaroaren 24ko Enplegatzaile Indibidualaren langileentzat Akordio Kolektibo Nazionala' (Convention collective nationale des salariés du particulier employeur du 24 novembre 1999) aplikatzen zaie.

Aitaturiko legediaz gain Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE)189 Hitzarmena (189 H) azaldu beharra daukagu. Berau berresten duten estatuek etxeko langileen laneko erregulazioak errespetatu behar lituzkeen gutxieneko baldintzak ezartzen ditu. Frantziak oraindik berretsi gabe dauka hitzarmen hori.

LAN BALDINTZAK

- Laneko kontratua

Aldizkako lanetan ez dago lan kontratua idatziz egin beharrik. Aldizkako lanak honakoak dira: astean 8 ordu baino gutxiago lan eginez gero edota urtean lau aste jarraian lan egiten ez badu enplegatzaile berdinarentzat.

Beste kasuetan beharrezkoa da laneko kontratua idatziz egitea.

Kontratazioa zuzenean, CESU bidez (geroago dago garatuta) edota enpresen bidez egin daiteke.

- Ordainsaria

Gutxieneko Lanbidearteko Soldata jasoko dute. Orduko soldata gordina 10.15 euro. Urtean 18473 euro gordin.

- Jardunaldia

Jardunaldi osoan lan eginez gero asteko 35 orduko jardunaldia dute.

Legegileak ordu horiez gain honako hauek ere erregulatzen ditu:

- 'Egote arduratsuko' orduak. Langileak ordu horiek beretzat erabil ditzake baina esku hartzeko prest egon beharko du behar izanez gero. Egote arduratsu moduan izendaturiko ordu bakoitzak laneko ordu erreal baten 2/3 gisa kontatuko du.
- Aparteko orduak. Astean 35 ordu gainditzen dituzten orduak izango dira. Aparteko ordu horiek lan egin eta hurrengo 12 hilabetetan ordaindu edo denboran konpentsatuko dira. 12 aste jarraituko epe batean aparteko orduak ezingo dute asteko 8 orduko batz bestekoa gainditu, eta aste berean 10 ordu baino gehiago ere ezingo dira izan.

Lehen 8 ordutan ordainketa edo errekupeazioak % 25eko igoera izango du eta handik aurrera % 50ekoa.

- Langabezia prestazioa

Etxeko langileek badute langabezia prestaziorako eskubidea.

Kaleratzeak eta kalteordainak.

- Langilearen kaleratzea. Kalteordainak: 65 urte baino gutxiago dituzten eta gutxienez enplegatzaile berdinarekin 2 urteko antzinasun jarraitua duten langileei honako indemnitazioak onartuko zaizkie:
 - › Lehen 10 urtetako antzinasuna duten bitartean: lan eginiko urte bakoitzeko 1/4 hilabeteko indemnitazioa.
 - › 10 urteko antzinasunetik aurrera: lan eginiko urte bakoitzeko 1/3 hilabeteko indemnitazioa.
- Enplegatzailearen heriotza. Enplegatzailearen heriotzarekin ipso facto bukatzen da kontratua. Langileak honakoa jasoko du: azkeneko soldata, bere antzinasunaren arabera indemnitazioa, oporren zenbatekoa.
- Jubilatzeako asmoagatik 60 urteko langileak lana uzten badu kalteordaina jasotzeko eskubidea izango du:
 - › 10 urteko antzinasunaren ondoren, hilabeteko soldata gordinaren erdia.
 - › 15 urteko antzinasunaren ostean, hilabeteko soldata gordina.
 - › 20 urteko antzinasuna eta gero, hilabete t'erdiko soldata gordina.
 - › 30 urteko antzinasunaren ondoren, 2 hilabeteko soldata gordina.

- Atsedanak

Astean 24 ordu jarraituko atsedena izango dute langileek gutxienez. 24 ordu horiei egun erdiko pausa gehituko zaio. Kontratuan zehaztuko da asteko atsedeneko eguna zein izango den. Igandea izatea lehenetsiko da.

- Gaueko lana.

Gaueko lana erregulatuta dago.

Langileari etxebizitzan lo egitea eskatzen bazaio ostatua ezingo da soldatetik kendu. Kontrakoa, kontratuan bertan hitzartuko da gaueko lana eta soldatan konpentsazioa izango du. Konpentsazio horrek ezin izango du ohiko soldataren 1/6 baino gutxiago izan. Esku-hartze mota eta maiztasunaren arabera konpentsazio hori altuagoa izango da.

Langileak aparteko gela batean lo egin beharko du ohiko lanik egin gabe eta beharrezkoa bada esku hartuko du.

Gauean egotea ezingo da 5 gau jarraian baino epe luzeagorako eskatu eta gau bakoitzean ezingo du 12 ordu baino gehiago egon modu horretan lanean.

Gauero, behin baino gehiagotan esku-hartzea eskatzen bazaio langileari gaueko ordu guztiak 'egote arduratsu' moduan hartuko dira. Egoera hori behin-behinekoa izango da, jarraituko balu kontratua berrikusiko litzateke.

Itziar Varela, etxeko langile ohia. «*Familia batekin nengoen lanean eta baja hartu nuen. Itzultzerakoan langile bakarra kontratatuta zeukaten gauak ere pasatzeko, migrantea zen, lehen 4 langile geunden lekuan. Askoz ere merkeago ateratzen zitzairen.*»

- Ostatua.

Langileak lan egiten duen etxebizitzan ostatu hartuko balu soldatetik kendu ahal den onura bezala ulertuko da. Soldatetik kendu ahal den onura hori langileak bertan lo egitea eskatzen duenean baino ez da aplikatuko.

- Osasun arreta

Laneko kodigoaren xedapen guztiak dira aplikagarri kasu hauetan: laneko osasun azterketa, derrigorrezko aldizkako osasun azterketa, osasun azterketarekin berriz hastea kasu hauetan: 3 astetan gaixotasunagatik ez bada egon itzultzean, amatasun baimenetik itzultzean eta laneko istripuagatik gutxienez 8 egun egon bada lanera joan gabe, ostean.

- Adin txikikoak

Adin txikikoen lana berariaz dago erregulatuta; alde batetik, euren lanerako eta aparteko orduak egiteko mugak jarri eta, bestetik, ordainsaria nabarmen gutxituz.

- 14 urtetik 16 urtera adin txikikoak euren eskolako oporren erdirako soilik kontratatu daitezke, lan arinetarako soilik.

- Adin txikikoek, oro har, aparteko orduak ezin dituzte egin. Ezta gaueko lanik ere.
- 17 urte azpiko langileek % 20 gutxiago jasoko dute ordainsari gisa eta 17-18 urteko langileek % 10 gutxiago.

- Etxe batetik besterako denbora

Orduka lan egiten duten langileei etxe batetik bestera joateko denbora bat estipulatzen zaie eta lanordu gisa kobratzen dute. Dena den, denbora hori oso juxtua da eta askotan ez dator bat errealitatearekin.

Claire Legardinier, etxeko langilea. Orduka lan egiten du CESU sistemaren bidez kontratatuta: «Langile guztiei denbora bera ematen zaie etxe batetik besterako joan-etorrietan.»

Itziar Varela, etxeko langile ohia: «Nik lan egiten nuen Ziburun eta Donibanen, eta ez da berdina lan egitea udan edo udazkenean. Herria zeharkatzeko behar duzun denbora oso desberdina da, eta Hendaian berdin.»

CESU (CHÈQUE DOMICILE UNIVERSAL – ETXEKO TXEKE OROKORRA)

Enplegatzaileei zuzenduriko zerbitzu bat da. Orduka etxebizitza pribatuentzat lan egiten duten langileentzat (izan etxeko langile edo ez) Frantziako Estatuan langile horiek Gizarte Segurantzian altan eta legezko egoera batean egotea errazteko helburuarekin sorturiko sistema da.

Claire Legardinier, etxeko langilea: «CESUrekin gehienez egin ditzakezu 20-25 ordu astean, ezin dituzu egin 35 ordu. Inoiz ez zaude lanaldi osoan, beti orduka enplegatzaile desberdinekin. Langabezia eskubidea badago, baina orduka lan egiten dela kontutan hartu behar da eta langabezia horren araberakoa izango da.»

Langileen laneko eskubideak 'Enplegatzaile Indibidualaren langileentzat den Akordio Kolektibo Nazionalak' erregulatuko ditu kasu honetan ere eta lan baldintza eta eskubide berberak onartuko zaizkio. Berezitasun gisa oporren zenbatekoa laneko orduko zenbatekoaren barnean jaso daitekeela da.

Claire Legardinier, etxeko langilea: «Oporren % 10a jasotzen da orduko zenbatekoan»

Esan beharra dago 'Enplegatzaile Indibidualaren langileentzat den Akordio Kolektibo Nazionalak' jasotzen dituen lan baldintzak gutxienekoak direla, eta CESU zerbitzua erabiliz gero etxeko langileak beti gutxienekoa jasoko duela inolako onurarik gabe.

Itziar Varela, etxeko langile ohia: «Zu CESUrekin bazaude igual ordainduko dizute 11 euro ordua eta ez badaukazu hori igual dira 15.»

- Zer eskaintzen du CESU zerbitzuak?

Bi CESU mota daude.

- CESU adierazlea: langile bat kontratatu, Gizarte Segurantzian altan eman eta ondorengo kudeaketa guztian (ezgaitasun iragankorrak, lizentziak...) laguntzen dute.
- Aurrefinantzatzen duen CESU: etxeko langilearen soldata osoa edo zati bat ordaintzen dute era berean.

HEGO EUSKAL HERRIA

Emakumeak eta migranteak

Sektorean emakumeen eta migranteen zenbatekoa oso altua dela jakina da. Datu zehatzei begira jarritz gero zenbateko hauek zehazteko iturri desberdinei so egin diegu:

Alde batetik, Gizarte Segurantzaren altan dauden langileak ditugu. Hego Euskal Herrian altan dauden langile guztietatik % 95 inguru emakumeak dira eta % 38 inguru migranteak.

Dena den, badakigu etxeko langileen zati handi batek Gizarte Segurantzaren altan egon gabe lan egiten duela. Beraz, beste datu batzuei ere erreparatu beharra daukagu errealitate hurbildu ahal izateko.

Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak (ATH-ELE) urtero euren aholkularitzatik pasatzen diren etxeko langileen inguruko estatistikak egiten ditu. Gizarte Segurantzako kotizazioek ematen diguten argazkiaren oso bestelako errealitatea aurkeztu digute elkarte honetatik:

Eurek 2019an kontsulta pasatako ia % 98a emakumezkoa zen, % 88 inguru migrantea (nazionalitate bikoitzekoak barne) eta horietatik % 38 egoera administratibo irregularrean. % 43 barneko langileak ziren, eta horietan migranteen tasa % 99ra igotzen da. Migrante horien artean egoera irregularrean zeuden langileak % 42 ziren.

Bi datuek agerian uzten dute Gizarte Segurantzaren altan eman gabe dauden, eta ondorioz baldintza zaurgarriagoak dituzten etxeko langileen profila: migranteak eta horietako asko egoera administratibo irregularrean.

12

Etxeko langileen arauketa

Langileon erregimena arautzeko eskumena estatuak dauka, ondorioz baita etxeko langileena ere. Beraz, Hego Euskal Herrian estatuko legedia aplikatzen zaigu.

1620/2011 Errege Dekretuak etxeko langileen erregimen berezia arautzen du. Zergatik da ordea berezia? Zer desberdintzen du 'ohiko' harreman laboraletatik? Txosten honetan galdera horri erantzuten saiatu gara, izan ere, Espainiar Estatuko legedian bestelako erregimen bereziek onurak dakartzaten bezala, kasu honetan kontrakoa gertatzen da: langileen estatutuan onartzen diren eskubideak ez dira onartzen etxeko langileentzat.

27/2011 Legeak modu mailakatuan erregimen orokorra aplikatzen joango direla jasotzen du 2019. urtera arte, langabezia prestazioa izan ezik. Ondoren zehatzago azalduko badugu ere, komeni da aipatzea lege horrek aldaketak jasan dituela eta horren ondorioz 2019ko epe hori atzeratzen joan dela. Legea onartu denetik etxeko langileen egoerak ez du egin hobera nabarmen.

Espainiak, Frantziak bezala, oraindik berretsi gabe dauka NLEren 189 Hitzarmena (189 H) eta horixe izan da etxeko langileen aldarrikapen bat azken urteetan, 189 H berrestea. Izan ere, berau berrestea hainbat gai erregulatza behartuko luke estatua etxeko langileen baldintzak hobetuz, tartean langabezia prestazioa jasotzeko eskubidea edota laneko osasunaren erregulazioa. Espainiar Estatuan 2019an eraturako gobernuak legealdi honetan 189 H berresteko asmoa azaldu du. Horrek lau urte hauetan legediaren aldaketa bat gertatuko dela pentsaraztera garamatza. Dena den, tentuz hartu beharreko gaia da aurrekariak ezagututa. Izan ere, 189 H berretsiko duten ikusteke dago. Gainera, lehen esan bezala, hitzarmena berrestea lege aldaketa bat eskatzen du eta hori noiz eta nola egingo duten eta legea betetzeko neurri eraginkorrak jarriko dituzten ez da ziurra.

Argi dagoena da 189 Hitzarmena berrestea soilik ez duela etxeko langileen egoera de facto hobetuko. Gainera, historikoki sistema mantendu ahal izateko emakumeek doan buruturiko lana kontutan izanda, emakumeekiko oro har eta, zehatzago, etxeko langile guztiekin estatuak daukan zor historikoa gainditzeko planteamenduak ere mahai gainean behar luke eta, oraingoan, horrelako aukera bat oso urrunekoa da.

Bestetik, etxeko langileek badute negoziazio kolektiboko eskubidea euren lan baldintzak erregulatu eta hobetzeko bide gisa, baina oraingoz bide hori jorratu gabe dago. LAB Etxeko Langileek hitzarmen propio bat izan dezaten lanean ari da.

LAN BALDINTZAK

Lan baldintzak langileen estatutuan edozein langileri onartzen zaizkionak baino okerragoak dira eta, gainera, baldintza horiek ez dira betetzen kasu gehienetan, ez betetze hori egiturazkoa da:

- Lan kontratua

Lehen eskubide urraketa kontratua sinatzen den unetik hasten da.

Laneko kontratua idatziz jasotzeko betebeharra dago, baina adibidez, 'Trabajadoras No Domesticadas' txostenean parte hartu duten langileen erdiek ez zuten idatzizko kontraturik. ATH-ELeren estatistiken arabera langile egoiliarren ia % 35ak ez zuen idatzizko kontraturik eta kanpoko langileen kasuan % 30ak.

Luz, etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren gaur egun orduka egiten du lan kanpoan: «*Nik lan egiten dudan lekuetan ez dute kontraturik egin nahi Gizarte Segurantzaren ez ordaintzeko.*»

Kontratuarekin jarraituz, laneko kontratuan laneko baldintza errealak jaso beharra dago eta hori oso gutxitan gertatzen den gauza bat da.

Liz Quintana. 'Trabajadoras No Domesticadas' Kolektiboko kidea: «*Normalean kontratuak ez dituzte etxeko langileen baldintza errealak jasotzen, enplegatzaileak ezartzen duen zerbait izan ohi da Gizarte Segurantzaren kuota txikiagoa ordaintzeko. Langileak ez dira horrek duen garrantziaz jabetzen harik eta adibidez baja bat hartu eta beharko luketena baino askoz ere diru gutxiago jasotzen hasten diren arte.*»

Asteko jardunaldia, jasotzen duten soldata... hainbat elementu egon ohi dira oker kontratuan, eta kontratuko baldintzen arabera kotizatzen da. Datuak oker egotearen arrazoi nagusia enplegatzailearen kotizazio betebeharra murriztea da eta, horren ondorioz, langilearen babesgabetasuna izugarri handitzen da. Alde batetik, kotizazioaren ondoriozko prestazioak ez direlako behar lituzkeenak izango eta, bestetik, langileak egin ahal izango lukeen edozein erreklamazioren aurrean kontratuko lan baldintzak hartu ohi direlako kontuan, kontrakoa frogatu ezean.

- Ordainsaria.

Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) 14 pagetan. 2020an 950 euro gordin 14 pagetan, urtean 13300 euro gordin. Espezetan (mantenua eta ostatua) ere ordaindu daiteke, gehienez soldata osoaren % 30.

Azken bi urteetan etxeko langileek jaso beharreko ordainsariak igoera nabarmena izan du. 2018an Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) Espainiar Estatuan 736 euro inguru zen 14 pagetan. 2019an LGS 900 eurora eta 2020an 950 eurora igotzeak etxeko langileen soldatetan igoera nabarmena suposatu beharko luke. Baina, kasu askotan, ikusi dugu langile askori igoera horrek ez diela onurarik ekarri, soldata berdinarekin edo kasu batzuetan gutxiagorekin geratuz:

Liz Quintana, 'Trabajadoras No Domesticadas' kolektiboko kidea: «*LGSren azken igoerekin soldata igoera langile askorentzat ez da debaldekoa izan. Ordainean, enplegatzaile askok ordu gehiago lan egitea edota dagokiona baino Gizarte Segurantzaren kuota zati handiagoa ordaintzera behartzen dute langilea.*»

ATH-ELeren ordainsariei buruzko estatistikak oso esanguratsuak dira: langile egoiliarren % 96ak ez du jasotzen LGS bere jardunaldiaren arabera. Kanpoko langileen kasuan % 45ekoa da datu hori.

Almudena Escalona, etxeko langilea. Kanpoko. Orduka egiten du lan: «*Orain pertsona heldu baten etxean ari naiz lanean. 5 urte daramatzat soldata igoerarik gabe.*»

Rosa, etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «*Beti jaso dut legez zegokidana baina gutxiago eta sekula ez dut jaso aparteko pagarik, aparteko ordurik, ezer ez, oporrak ere ez ditut inoiz izan.*»

«*Dagokidana ordaintzeko eskatu diodanean orduak jaisten dizkidala erantzun dit. Lan bera denbora gutxiagoan egin beharko dut.*»

- Kotizazioa. Tarteak eta hutsuneak.

27/2011 Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko Legeak tarte araberako kotizazio sistema bat ezarri zuen etxeko langileentzat. Sistema horrekin lan egin dugu gaur egun arte tarteak aldatzen joan diren arren.

Sistema horren bidez, soldata tarte batzuk zehaztuta daude eta kotizazio oinarri bat egotzen zaie. Ondorio gisa etxeko langileek ez dute kotizatzen soldata errearen arabera. Horregatik, kotizazioaren ondorioz jaso ditzaketen prestazioak ez datoz bat euren soldata errearekin.

2019tik aurrera soldata errearen arabera kotizatzeke betebeharra aurreikusita bazegoen ere, 2019ko Estatuko Aurrekontuen Legeak 2024ra atzeratu zuen data hori. Ondoren, PSOE-UP akordioaren ondorioz 2021etik aurrera soldata osoaren arabera kotizatuko zela jaso zuten (8/2015 Errege Dekretu Legegilearen 16. xedapen iragankorra).

Gainera, Gizarte Segurantzak ez du kontrolatzen kotizazioak benetan ongi egiten ote diren. Adibide gisa eman dezakegu azken urteetako LGSren igoerak ez duela suposatzen kotizazioetan tarte aldaketarik langile gehienentzat. Beraz, edo LGStik behera kobratzen ari dira langile horiek, edo euren benetako lan baldintza errealak ez ditu jasotzen kotizazioak. Gizarte Segurantzak borondatea eta bitartekoak balitu oso, erraza litzateke iruzurra detektatzea, baina ez du egiten.

Bestetik, kotizazioetan hutsuneak badaude, ez dago horiek betetzeko aukerarik beste erregimenetan gertatzen den gisa. Hutsarte horiek estaltzeko aukera 2024ra arte geratu da atzeratuta aipatu dugun 2018ko Estatuko Aurrekontuen Legeak hala ezarrita. Kontuan izan behar dugu etxeko langileen erregimen bereziak kotizazioetan hutsuneak egotea errazten duela. Langabezia prestazioa ez izateak eta kontratua egun batetik bestera eten ahal izateak horrelako egoera anitz egotea errazten du. Horren ondorioz, pentsioa edota kotizazioetatik eratortzen den edozein prestazio kalkulatzekoan orduan eta zenbateko apalagoa geratuko zaie etxeko langileei.

- Langabezia prestazioa.

Ez dago. 1620/2011 Errege Dekretuak bere bigarren xedapen gehigarrian ezartzen du 2012ko abenduaren 31 baino lehen etxeko langileek langabezia prestazioa jasotzearen inguruko txostena egingo zuela Lan eta Immigrazio Ministerioak eta gehiengo ordezkarien duten enpresen elkarte eta sindikatuek proposaturiko aditu talde batek. Txostena egin gabe dago gaur egun.

- Kaleratzeko arrazoiak eta indemnizazioen kopuruak

Indemnizazioak langileen estatutuan onarturikoak baino baxuagoak dira eta kaleratzeko arrazoiak oso malguak. Azpimaragarriena 'enplegatzaileak atzera egin' ahal izatea genuke, beste arrazoirik eman gabe indemnizazio oso txiki batekin kaleratu ahal izateko.

Etxeko langileak kaleratzeko arrazoiak honakoak dira:

- Enplegatzailearen heriotza. Hilabete bateko soldadari dagokion indemnizazioa soilik kobratuko du langileak. Kontuan izan behar dugu etxeko langileek ez dutela langabezia prestaziorik, beraz, egun batetik bestera enplegurik gabe, langabezia prestaziorik gabe eta hilabete bateko soldatarekin soilik gera daiteke. Langile egoiliarrei dagokienez, egun batetik bestera ostaturik gabe, hilabete bateko soldatarekin eta langabezia prestaziorik gabe kalean gelditzea ekar dezake horrek. AHT-ELeren arabera, barneko langileen laurdena baino gehiago geratu zen kalean arrazoi horregatik 2019an.
- Enplegatzaileak atzera egitea. Enplegatzaileak idatziz kontratua eten nahi duela adierazten dionean. Lan egindako

urte bakoitzeko 12 eguneko indemnizazioa kobratuko du 6 hilabeteko soldataren mugarekin.

- Diziplinazko kaleratzeak.

- **Bidezkoa.** Langileak modu esanguratsuan bere obligazioak betetzeari uzten dionean. Ez dago indemnizazio esku-biderik.
- **Bidegabea.** Falta larria ez denean justifikatzen edo komunikazioa ez denean idatziz egiten. Lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko indemnizazioa 12 hilabeteko soldataren mugarekin.

Dagokiena hori izanik ere, askotan gertatzen dira indemnizaziorik gabeko ahozko kaleratzeak.

Almudena Escalona. Etxeko langilea. Kanpoko gisa lanean. Orduka egiten du lan.: *«Nire eskubideak, atsedanak eskatzen hasi nintzenean kaleratu egin ninduten. Egun batetik bestera kalean utzi ninduten ezer gabe. Lizak lagundu zidan eta ordaindu beharrekoa ordaindu zidaten.»*

- Laneko jardunaldia.

Gehienezko lanaldia asteko 40 ordukoa da kanpoko zein barneko langileentzat. Presentziazko beste 20 ordu gehitu daitezke astean. Presentziazko ordu horietan langilea zerbitzuak eskaintzeko moduan egon beharko da baina benetako lanik egin gabe.

Beraz, 60 orduko lan-astea izan dezaketela esan dezakegu. Praktikan, ordea, asteko lanaldia askoz ere zabalagoa izan daiteke. ATH-ELEK jasotako 2019ko datuen arabera barneko langileen % 80 pasatxok astean 60 ordu baino gehiago egiten du lan.

Gainera, etxeko langileen jardunaldiaren kontrola ez dago erregulatuta. 8/2019 Errege Dekretuak langile guztien jardunaldiaren erregistroa izatea ezartzen du betebeharrak gisa, baina oraingoan ere etxeko langileak erregulazio horretatik aparte geratzen dira, jardunaldiarena beste edozein sektoretan baino arazo larriagoa bada ere.

- Atsedanak.

Lanaldien artean gutxienez 12 orduko atsedena egon behar da kanpoko langileen kasuan. Egoiliarrei dagokienez, 10 orduko atsedena izan dezakete, baina beste 2 orduak 4 asteko epe batean konpentsatu beharko dira atsedena gisa. Astean 36 ordu jarraituriko atsedena izateko eskubidea daukate.

Atsedanak ere ez dira errespetatzen orokorrean. 2019ko ATH-ELEren estatistiken arabera langile egoiliarren laurden batek ez du egunean zehar inolako atsedunik hartzen. Asteko atsedinari erreparaturik, barneko langileen laurdenak ez du atsedunik eta erdiek, atsedena izan arren, 36 ordukoa baino laburragoa dute. Gehiengo zabalak ez du legeak markatzen duen atsedena hartzeko eskubiderik. Eta gaueko atsedinari dagokionez, % 60ak ez ditu 10 orduak deskantsatzen.

Luz. Etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren, gaur egun orduka egiten du lan kanpoan: *«hasieran batek ez ditu bere eskubideak ezagutzen. Eskaintakoa hartu egiten duzu. Goizeko betan jaiki beharra neukan eta gaueko hamarrak arte lan egin. Barneko gisa nengoen epilepsia eta buruko atzerapena zuen pertsona batekin. Asteleheneetik larunbatera, igandean bakarrik libratzen nuen. Horrek nekatu egiten du. (...) Gainera neskari konbultsioak ematen zizkion eta txakur bat zuten. Eta okerrean zen txakurra erasokor jartzen zela. Egun batean hozka egin zidan.»*

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: *«Barneko langile gisa lanean egon nintzen, baina ez zitzaidan gustatu. Haur jaioberri goiztiar bat zaindu behar nuen, ardura handia zen xiringa bidez eman behar nion eta jaten. Gaez jaiki beharra neukan eta berarekin egon, batere atsedunik gabe. 7 egun astean 24 ordu egunean.»*

- Gaua pasatzeko erregimena.

1620/2011 EDk ez du gaueko lana erregulatzen. Barneko etxeko langilearen eta enplegatzailearen artean gauzatzen den paktua da gaua pasatzeko erregimena, zeinak jasotzen duen langileak egunean zehar zerbitzua egingo duela eta gaez etxebizitza horretan lo egiteko betebeharra izango duela.

Erregimen honek ez du legezko prezio zehatzik, bi aldeek adostu dezakete prezio bat. Dena den, gaua pasatzeko erregimena adostegatik ez da soldata handiagoa ordaindu beharko. Are gehiago, erregimen hauek espezie bidezko soldata bezala ulertzen dira eta enplegatzaileak aukera izango du soldatetik deskontua egiteko, betiere, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren azpitik geratzen ez bada.

Enplegatzaileak ezin dio langileari gaueko hamarrak baino lehenago etxean egoteko eskatu, ezin dio gauean lan eginarazi eta langileak, larrialdi kasuetan izan ezik, bere logelan egoteko eskubidea dauka. Aipatu muga horiek errespetatzen ez dituen erregimen oro lanaldiaren parte izango da edota presentziatzeko orduena, eta horrela ordaindu beharko da. Beraz, gaueko egonaldia langilearen eguneko atsedena da. Lanaldia amaitu ondoren, langileak ez du etxean egoteko betebeharririk. Gehienezko lanaldia 8 ordukoa bada, 2 ordu otorduentzat eta beste 12 ordu gaueko egonaldiarentzat, 2 ordu izango ditu libre. Gaueko egonaldiko 12 orduetan ere kalera atera ahal izango da. Asteko atsedena igande osoa hartu beharko du, baita larunbata arratsaldea edo astelehen goiza ere.

Hego Euskal Herrian gaueko lana ez erregulatzeak dakarren ondorioa da etxeko langile egoiliarrek ia atsedetik gabe, egun eta aste osoan lanean jardun beharra daukatela, euren bizitza proiektua ezin garatuz. Gainera, langile egoiliarren atsedetik orduak, praktikan, laneko ordu bihurtzen dira kasu horretan jaso beharko luketen soldata jaso gabe eta pertsona orok bizitza osasuntsu bat izateko behar duen atsedetik egin gabe.

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «*Kanpoko langile bezala lan egiten dut orain, barneko bezala dagoeneko ez dudalako nahi izan. Esklabotza modernoa da.*»

- Lan ikuskaritzaren jarduna.

1620/2011 EDk bere 12. artikuluan lan harreman honen laneko legedia betetzen denaren kontrola lan ikuskaritzak egin behar duela ezartzen du.

Etxeko langileen lan baldintzak ez direla errespetatzen argi utzi dugu. Egoera horren aurrean, lan ikuskaritza eraginkor bat behar dugu, baina behar dugunaren kontra, lan ikuskaritzak ez du ofizioz inolako kontrolik etxeko langileen jardunaren inguruan.

Lan ikuskaritzak bere lana ez egiteko arrazoi gisa, konstituzioak babesten duen bizilekuaren bortxaezintasunaren klausularen lehenespena ezarri da. Hau da, etxeko langilearen eskubideen kontrol eraginkorra ez egitea, ikuskariak enplegatzailearen etxebizitzan sartzeko ezintasunarekin lotzen dute.

Dena den, esan beharra daukagu, bizilekuaren bortxaezintasunarena soilik balitz arazoa, bizilekua alde batera utziz ere lan kontratuen kontrola, soldatena, kotizazioena, enplegu agentziena... egin ahal izango litzatekeela, lan ikuskaritzak horretarako baliabide eta irizpideak balitu. Baina ez da horrela gertatzen. Ez dago etxeko langileen lan baldintzak errespetatzeko interes politikorik, ez Espainiako Gobernuaren aldetik (Nafarroan berak du eskumena), ezta Eusko Jaurkitzaileen aldetik ere (EAEko lan ikuskaritzaren eskumena dauka).

- Lan osasuna eta laneko segurtasuna.

Etxeko langileak Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legetik at kokatzen dira aipatu legeak espresuki horrela jasotzen duelako.

Etxeko langileek, dena den, badute laneko arrisku eta osasunaren inguruan eskubiderik. 1620/2011 EDk lan harremanaren edukia erregulatzen duenean, bere 7.2. artikuluan honakoa ezartzen du: «Enplegatzailearen betebeharra izango da etxeko lana beharrezko osasun eta segurtasun baldintzetan egiten dela zaintzea, horretarako neurri eraginkorrak hartuko ditu, etxeko lanak dituen baldintza bereziak aintzat hartuz. Betebehar horiek modu larrian ez betetzea enplegatuak dimittitu ahal izateko bidezko arrazoia izango da.»

Beraz, zuzenean ez bada ere, legeak jasotzen du lan osasuna eta laneko segurtasuna modu eraginkorrean betetzearen betebeharra. Baina betebehar hori nola egikaritzeko den arautu gabe dago, eta hori arazo larria da. Zaintza lanak egiten dituzte, pertsonekin lan egiten dute eta lan osasunaren ikuspegitik iraunkorki daude arriskuan. Erregulazio espezifikorik ez egoteaz gain, ez dago lan osasunaren inguruko inolako kontrolik.

Eusko Legebiltzarrak eskatuta, 2019an OSALANek etxeko langileentzat lan osasunerako gida bat kaleratu zuen. LA-Bek gida horren inguruko ikuspegia publiko egin zuen berau gogor kritikatu; izan ere, nahikoa ez izateaz gain, langilearen gain jartzen da laneko segurtasuna betetzearen ardura osoa.

Kari, etxeko langilea, orduka egiten du lan kanpoko langile gisa. Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko kidea da: «Arrisku handia daukagu babesik gabeko leihoak garbitzen, eskailerak etab. (...) Oso produktu gogorrekin egiten dugu lan. Batzuk oraindik amoniakoarekin lan egiten dute.»

ENPLEGU AGENTZIA PRIBATUAK

Lanbidek eta Servicio Navarro de empleo-Nafar Lansarek ez dute bitartekotza eta laneratze bulego gisa lanik egiten sektorean, enplegu agentzia pribatuen esku utziz lan hori. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo autonomikoak baimendutakoak bakarrik dira legezkoak.

Enplegu agentzien errealitatea iluna da oso. Legeak Enplegu Agentzia Publikoen baimena dutenek bakarrik lan egin dezaketela ezarri arren, errealitatean bi enplegu agentzia pribatu existitzen dira:

1. **Enplegu Zerbitzu Publikoen baimenik gabe funtzionatzen dutenak.** Askotan bulego finkorik ere ez daukate, telefono batekin funtzionatuz. Mota horretako agentzia publiko baten bidez egiten denean kontratazioa, arazoak izugarri areagotzen dira.
2. **Enplegu Zerbitzu Publikoen baimenarekin funtzionatzen dutenak.** Baimenduak ere bi motatan bereiziko ditugu:
 - Irabazi asmorik gabeko agentziak (Caritas etab.). 2011ko legeak enplegu agentzia pribatuen jarduna erregulatu aurretik, etxeko langile guztiakin egiten zuten bitartekari funtzioa, egoera irregularrean edo ez. Orain ordea paperak dituzten langileekin soilik egin dezakete lan hau. Beste agentziek baino modu egokiagoan lan egiten dutela esan dezakegu.
 - Irabazi asmoa duten agentziak.

Liz Quintana. 'Trabajadoras No Domesticadas' kolektiboko kidea: «irabazien marjina hain txikia da, inor honekin negozioa egiten ari bada, ziurrenik gauzak gaizki egiten direlako dela. Denetariko kasuak ikusi ditugu. Batzuetan enplegatzaileek agentziari 1400 euro ordaintzen zizkien langileak hori kobratzen zuela pentsatuz eta agentziak langileari 800-900 euro ordaintzen zizkion, besterik ez. Edota agentziek esaten die langileak paperak dituela eta gizarte segurantzian kotizatzen ari dela eta langilea egoera administratibo irregularrean dago. Kasu hauetan, familiek egia jakiten dutenean (asko kostatzen da eta batzuetan ez da jakin ere egingo) batzuetan kontratua zuzenean egitea erabakitzen dute, agentzia gabe. Kasu horretan, kontratuan klausula bereziak sartzen dituzten agentziekin topo egin dugu, non agentziarekin harremana eteten bada, alde bakoitzak 3000 euroko penalizazioa ordaindu behar zuen. Hori ez da legezkoa, baina aldeek ez baldin badakite mehatxu moduan funtzionatzen du.»

ABUSUAK ETA INDARKERIA

Etxeko langileen intimitaterako eskubidea, bizitza proiektu bat garatzeko aukera, harreman afektibo-sexualak izateko eskubidea, familiarekin harremanetan jartzekoa, nahi bezala jantzi eta jatekoa, erasotua ez izatekoa... eskubide horiek guztiak mugatuak daude edota urratu egiten dira egunero.

Gainera, kosta egiten da, oro har, lan eskubideen urraketak salatzea. Elementu emozionala, zaintza lanekin loturik dauden lanpostu guztietan bezala, oso altua da, baita gatazka ekiditeko joera ere. Egoera irregularrean dauden emakume etorkinen kasuan, joera hori are gehiago nabarmentzen da, zaurgarritasun egoera gero eta handiagoa, orduan eta indar handiagoa hartuko du joera honek: lanpostuaren premiazko beharrezana, egoera erregularizatu artean edozer gauza onartu behar dutela pentsatzea... arrazoi asko egon daitezke horren atzean.

Luz. Etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren, gaur egun orduka egiten du lan kanpoan: «Nik dena jasaten nuen behar nuelako. Gaixo dagoen ahizpa bat daukat eta oraindik bere tratamendua ordaintzen ari naiz. Zaila egiten zitzaidan nire eskubideak errespetatu zitzala eskatzea. Baina nire eskubideen errespetua eskatzeko hautua egin nuen eta emakumeak kaleratu egin ninduen. Nire kabuz joateko eskatu zidan, eta nik ezetz erantzun nion. Orri bat sinarazi nahi zidan. Dokumenturik ez nuela, deportatu ahal nindutela, polizia kanpoan egongo zela... esan zidan eta nik paperak izan banituen eskubide hobeak izango nituela.»

Langileari mantenua eta ostatua ematea adosten duten kasu askotan gehiegizko kontrola egoten da enplegatzailearen aldetik, langilearen elikadura eta intimitaterako eskubidea urratuz. Langileak jaten duen guztia neurtu, oso janari mugatu eta urria eskaini, langilearen logelan sartu eta gauza pertsonalak arakatu, gauetan atea irekita mantentzera behartu, langilearen ur, argi eta berogailuaren kontsumoa kontrolatu, telefonoz hitz egiteko denbora mugatu, elkarrizketak entzun... ohikoak dira egoera horiek etxeko langileen artean.

Luz. Etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren, gaur egun orduka egiten du lan kanpoan: «Inoiz ez nuen inor etxera ekartzen. Bera (enplegatzailea) nire logelan sartzen zen bere gauzak bertan izaten zituelako.»

«Dutxatzeko 5 minutu soilik nituen, eta ordulari bat jarriko zidala esaten zidan, gasa xahutzen nuela.»

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «Haurraren logelan geratzeko esan zidaten, ni nengoen amaren ondoan gurasoak egon beharrean. Beraiekin hilabete bat bakarrik egon nintzen, begi-zuloak besterik ez zitzaidan ikusten.»

«Bi haur zaintzen egon nintzen. Haurrek jo egiten ninduten, tu egin... eta gurasoek ez zuten ezer egiten. Horrez gain, janaria kontrolatzen zidaten, eurei soberan geratutakoa ematen zidaten eta ez zidaten jogurta edota fruta jaten uzten. Egund batean zerbait jan izana egotzi zidan, ez zen egia eta lana utzi nuen.»

Abusuak ere oso ohikoak dira sektorean. Langilea gutxiestea, euren lanetik harago doazen exijentziak... hamaika adibide topatu ditugu.

Almudena Escalona. Etxeko langilea. Kanpoko gisa lanean. Orduka egiten du lan.: «Egunean bi ordu egiten ditut lan. Nire lana honakoa da: garbitu, enplegatzailearentzat janaria prestatu... baina asteleheneetik ostiralera seme-alabak eta bilobak ere bazkaltzera etortzen dira. Bost lagunentzat prestatu beharra daukat bazkaria, eta ondoren dena garbitu. Ez da bazkaria prestatzea soilik.»

«Pasa izan zait nire lana bukatu ostean enplegatzaileak edozein ordutan deitzea hurrengo eguneko azalpenak emateko, nire intimitatea eta ordutegiak errespetatu gabe. Denbora guztian eskuragarri egon behar dugula dirudi.»

«Dena egiten duen neska zara. Gainera mesede bat egiten dizutela dirudi. Ez zaituzte langile gisa errespetatzen.»

Luz. Etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren gaur egun orduka egiten du lan kanpoan: «Orokorrean jendeak abusatu egiten du. Gaur gauean atera egin behar dut, gera zaitzake 23.30 arte? Baina ez datoz ordu horretan. Eta zuk hor eserita egon behar duzu. Kontutan izan ordutegi bat nuela eta goizeko 6.00etan jaiki beharra. Berdin zuen lo eginda edo gabe, hurrengo egunean zutik egon beharra neukan.»

«Medikuarenera joan ahal izateko persona bati nik ordaindu behar nion bertan egon zedin.»

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «Diru asko zuen familia batekin egon nintzen eta oso zorrotzak ziren. Bi ordutan etxeko garbiketa guztia, lisaketa... egin behar nuen, arropa koloreen arabera sailkatzea nahi zuten, gehiegizkoa zen. Eta ez zitzaion nitaz ezer gustatzen. Gauzak nola garbitzen nituen zuzentzen zidan, hitz egiten nuenean ere zuzendu egiten zidan... horrela ezin nuela jarraitu eta lana uzten nuela esan nionean ez zitzaion gustatu eta lan egindakoa ere ez zidan ordaindu.»

Langileak jasaten duen egiturazko zapalkuntza gutxiespenarekin lotzen da orokorrean.

Kari, etxeko langilea, kanpoko langile gisa dihardu lanean. Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko kide da: «Gu gabe mundua ez da mugitzen, beharrezkoa da gure lana. Haurrak zaintzen ditugu, garbitu egiten dugu... beste pertsona batzuk

beste lan batzuk egin ditzaten. Eta hala ere ez gaituzte langiletzat hartzen, garbitzen duena, neskamea... eta miseriazko soldata. Eskubiderik gabe. Guk ere gizarte segurantza ordaintzen dugu eta ez daukagu langabezia eskubiderik. Non dago berdintasuna? Non dago negoziazio kolektiboa?»

Horrek guztiak langilearen autoestimuan eta osasun fisiko eta mentalean izugarrizko eragina dauka. Etsipena, ilusiorik eza... gailentzen da askotan. Baina babesa lortuz eta sareak osatuz aurrera egiteko indarra topatzen dute gehienek.

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «Hona etortzeak ez zuela merezi izan pentsatzen hasi nintzen. Baina orduan emakume elkarte batekin harremanetan jarri ninduten eta pixkanaka hemen bizitza nola den ikasten hasi nintzen eta neure burua zaintzen. Laguntza horri esker egin nuen aurrera, elkarrekin aurrera egin dezakegula sentitzen dut.»

SEXU JAZARPENA

Indarkeriaren barruan kapitulu bereizi bat merezi du gai honek.

Egiturazkoa den indarkeria modu oso gordinean jasaten dute etxeko langileek eta, gehienetan, ez da salatzen.

Beraien telefono zenbakiak edozeinen eskura daude (kalean orrietan, interneten...). Jazarpen sexuala telefonoz egunero jasaten dute.

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «Lana bilatu ahal izateko papertxoak pegatu ditut baina oso gaizki atera zait, perbertituek soilik deitu didate.»

Erasoak eta sexu-jazarpena etxe barruan ere oso ohikoa da, zaintzen duten pertsonaren edota senideen aldetik. Ahozko komentarioak langilearen gorputzaren ezaugarriei lotuta, baimendu gabeko gorputz-kontaktua, ukitzeak, proposamenak... bortxa sexuala erabili arte askotan:

Josefina Roco Sanfilippo, 'Txefi'. 'Trabajadoras No Domesticadas' kolektiboko eta Mundubat Fundazioko kidea da: «Orain ez dakigu asko gertatzen ari den edo lankideek gehiago kontatzen duten. Bitxia da erasoak egiten dituzten enplegatzaileek (gehienak gizonak) oso ondo zehaztuta dutela erasotzeko profila ("presak"). Kasu askotan, erasotzaile errepikariak dira, eta zaurgarritasun-egoeretan dauden emakumeekin inpunitate osoz mugitzen dira. Neska gazteak izan ohi dira: sare gutxi edo batere ez dutenak, iritsi berriak, egoera administratibo irregularrean daudenak, zorra jatorrian dutenak, etxebizitzarik ez dutenak, diru-sarrerarik ez dutenak eta lana berehala aurkitu behar dutenak. Jazarpen eta abusu mota desberdinak daude, une edota egoera desberdinetan, bai bilaketa-etapan, bai kontratuan.»

Elkarrizketan, iragarkien bidez, enplegatzaile batzuek profil bat zehazten dute pertsona horretaz aprobetxatu nahi dutela pentsatuz. Hori egiteko unean, atea giltzaz ixten dute, eta kasu batzuetan mugikorra eta pasaporteia ere kendu dizkiete (poltsa 'proba bat egiteko' uzten dutelako aitzakiarekin).

Ohiko beste kasu bat langileek bide publikoan lana bilatzeko jartzen dituzten abisuetan agertzen diren telefono pertsonalei egindako telefono bidezko jazarpena da, iradokizunekin eta mota guztietako sexu-proposamenekin.

Halaber, lan-harremanen esparruan dauden kasuan, sexu tratu-txar gisa dimentsionatzen ez diren jazarpen eta abusu-egoerak eta proposamen bidegabeak gertatzen dira. Hauek ez dute emakumeen erabaki askea izaten oinarri.

Horrela, etxe barruan denetarik aurkituko dugu. Jazarpena honako hauetatik dator: enplegatzailearen aldetik hitzezko proposamenak (batzuetan diru gehigarri baten truke, batzuetan hori ere ez); edo zaindua den pertsonaren familiako kideen eskaerak 'langilearen zerbitzuen parte gisa', zaintzen dituzten adinekoei masajeak, ukituak eta masturbazioak egitea eskatzen. Erasoa aldatu egiten dira, eta, batzuetan, gero eta nabarmenagoak dira iradokizunak, komentario sexistak eta arrazistak, ukituak, itxita uztea, langileen oheetan sartzeko ahaleginak, baita zuzeneko indarkeria fisikoa eta sexuala ere. Xantxia emozionala ere asko erabiltzen da. Ohikoa izaten da honakoak esatea: pentsatu al duzu zein ondo etorriko litzaiekeen zure seme-alabei? Edo zuzenean: zure salaketa sinetsiko dutela uste baduzu? 'India, puta... zuek latindarrak sutsuak zarete'.

Kasu guztietan, hori indarkeria da, abiapuntuko egoera asimetriko batean gertatzen delako, non beharraren ahultasuna beste zapalkuntza batzuekin tartekatzen den, hala nola paperik ez izatearekin eta horrek berekin dakarren salatzearen bel-durrarekin, enplegua eta etxebizitza galtzeko mehatxuarekin, sarerik ezarekin. Kasu askotan, horiek ez dira hitzez esaten, ez dute adierazten, uste dugu argitara ateratzen direnak egiazki existitzen denaren pittin bat baino ez direla.»

2018ko ekainean Mundubat-ek publiko egin zuen 'Trabajadoras No Domesticadas' txostenak hainbat indarkeria testigantza jasotzen ditu. Horietako batzuk ekarri ditugu:

«Hori da eguneroko ogia ... Etxeko zerbitzuko mojekin taldea genuenean, beti zegoen lankideren bat egoeraren bat kontatzen zuena. Errealitatearen parte da, gizon batekin lan eginez gero. Nik horregatik ez dut gizonekin lan egin nahi izan, denei eskatu diete gauzak egiteko ... intsinuazioak, ukituak, bere hankartea ukitzeko.» La Incansable, barnekoa eta kanpokoak orduka, garbiketa eta zaintza lanak egiten ditu.

«Andrea ohean zegoen bere logelan, eta mahai txiki bat eta ohe txiki bat zeuden, eta ni arratsaldeetan han esertzen nintzen berarekin, bera ezin zen mugitu. Egun batean, oso estua zen, nik pasatu egin behar nuen eta senarra ohearen kontra zegoen eta ukitu egin ninduen. Eta berriro egin zidan. Nik ez nion garrantzirik eman; hasieran, nahi gabe izan zela pentsatu nuen. Gero konturatu nintzen ukitu egiten ninduela, eskuarekin ipurdia ukitzen zidala... Gero konturatu nintzen ez zela nahi gabe... Honakoa gertatu zitzaidan arte: Arratsaldetan siesta egiten zuen, bera barruko arroparekin etzanda zegoen eta tapatzeko esan nion, gaixotu egingo zela eta beregana joateko esan eta galtzontziloak jaitsi eta ukitzen hasi zen... eta ohera joateko esan zidan. Ni andrea zegoen tokira joan nintzen, eta berak ea zer gertatu zen galdetu zidan, nik ez nion ezer esan ez berari, ez Udalari, horixe egin behar nuen baina. Pena eta guzti ematen zidan, begira. Baina kontatu nion eta harrিতa geratu zen, aitari ezer esateko eskatu nion. Zera erantzun zidan: baina Marian, nola ez diot ezer esango eta nik ez esateko, batez ere andrearengatik. Aldaketa eskatu nuen udalean, eta ordezkariak ea zerbait gertatu zitzaidan galdetu zidan, ezetz erantzun nion, nekatuta nengoela.» Marian, bi etxetan dago barneko gisa, eta garbiketa eta zaintza-lanak egiten ditu.

ATZERRITARTASUN LEGEA

Etxeko langileez ari garenean ezin gara geratu atzerritartasun legea aipatu gabe, izan ere, emakume eta migranteei buruz ari gara.

Emakume migranteentzat, Euskal Herrira iristen direnean, lanean hasteko izan dezaketen aukera bakarrenetakoa bihurtu da etxeko langile izatea. Euren egoera administratiboa oraindik erregularizatu ezinik, ia ia sortzen zaie edozein aukera hartzea behartuta egoten dira eta barneko etxeko langile gisa hasten dira asko eta asko, egoera are eta zaurgarriagoan.

Euren egoera administratiboa erregularizatu ahal izateko bide luzea egin behar izaten dute, bide luze eta zaila. Izan ere, ondorengo baldintzak aurkeztea eskatzen zaie lan eta bizileku baimena lortzeko: aurreko 3 urtetan erroldatuta edo bertan bizitzen egon izanaren frogara, errozte txostena eta lanbide arteko gutxieneko soldata edo gehiagokoa duen eta jardunaldi osokoa den idatzizko lan kontratua.

Beraz, 3 urtez modu erabat prekarioan egonazten zaie. Ondoren, hori frogatu beharra daukate, askotan ezinezko bihurtzen dena erroldatu gabe egon direlako edo euren izenean ez dutelako inolako dokumenturik izan. Eta gainera jardunaldi osokoa den kontratu bat eskatzen zaie jardunaldi partzialak geroz eta ugariagoak diren honetan.

Mota guztietako egoerak topa ditzakegu atzerritartasun lege horren ondorioz. Hiru urtez etxeko langile egoiliar gisa lanean modu irregularrean egon ondoren, kaleratu eta berriz zerotik hasi beharra. Enplegatzaileak idatzizko lan kontratu formala egin nahi izatea eta ezin izatea langileak oraindik ez dituelako 3 urte pasa hemen. Edo langileak egoera erregularitzeko betekizun guztiak betetzea baina jardunaldi partzialeko kontratua soilik lortzea. Edo barneko langile bezala egon izana 3 urte horietan eta enplegatzaileak bere etxebizitzan erroldatu ez izana, ondorioz langileak ezin du frogatu hemen daramatzala 3 urte, eta abar luze bat.

Luz. Etxeko langilea. Barneko langile gisa lanean egon ondoren, gaur egun orduka egiten du lan kanpoan: *«Emakumeak bi urtez ez zidan utzi bere etxebizitza erroldatzen. Ni beste etxebizitza batean nengo erroldatuta, bertan bizi ez arren, ordaindu egiten nuen. Egunen batean herrialde honetan nire egoera erregularizatu nahi nuke.»*

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «Gela bat topatu eta errolatzea oso zaila izan da.»

«Ez da soilik 3 urte egon behar duzula errolatuta, oso zaila da kontratu horiek lortzea, jendeak ez dizkizu egin nahi berarekin lan eginda ere.»

ATH-ELEren estatistikak egoera administratibo irregularrean egotearen ondorioak oso modu grafikoan jasotzen ditu. 2019an ia langile egoiliar guztiak emakume migranteak ziren, horietako % 30 egoera administratibo irregularrean. Horietatik gehienak mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza lanak egiten dituzte. Ia erdiak astean 80 ordu baino gehiago egiten du lan eta erdiak baino gehiagok (aparteko ordainsariak barne) 800-1000 euro artean jasotzen du. Indarkeria jasateko aukerak ere biderkatu egiten dira egoera horretan. Erabat zaugarri eta ikusezin bilakatzen dira.

KONFINAMENDU EGOERAREN ONDORIOAK

2020ko martxoaren bigarren astean Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak alde batetik, eta Espainiako Gobernuak bestetik, neurri gogorrek iragarri zituzten Koronabirusari aurre egiteko. Besteak beste, pertsona guztion konfinamendua agindu zuten etxetik ateratzeko salbuespen batzuk ezarri.

Egoera horren aurrean, Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintzaren krisia agerian geratu zela salatu eta hainbat eragilek parte hartu beharreko zaintza mahai baten sorrera iragarri zuen. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak ere egoera horren aurrean lehentasun sozialak publiko egin zituen Mugimendu Feministaren eskaerari modu positiboan erantzunez, besteak beste, eta etxeko langileentzat jardun protokoloaren beharra eskatuz. LABek ere Covid19 pandemiaren aurrean publiko egin zuen aldarrikapen taula, bertan zaintzaren krisiari aurre egiteko mekanismoak proposatuz.

Gobernuetatik etorri ziren neurriek, ordea, ez zioten inola ere zaintzaren krisiari erantzun, ezta etxeko langileen egoerari ere. Covid-19aren aurrean harturiko neurrien artean, 10/2020 Lege Errege Dekretuak oinarritzko aktibitate gisa onartu zuen zaintza lana. Hala ere, Espainiako Gobernuak etxeko langileei begirako neurri bakan bat onartu zuen: Gizarte Segurantzaren altan zeuden etxeko langileei oinarri arautzailearen % 70eko prestazioa onartu zien alarma egoera amaitu eta hilabete batez soilik luza zitekeena.

Laguntza hori oso mugatua izan zen. Kontuan izan behar dugu etxeko langileen % 30a (% 40az ere hitz egin ohi da) Gizarte Segurantzaren altan egon gabe dagoela, beraz, de facto etxeko langileen zati garrantzitsu bat laguntzatik kanpo geratu zen. Bestetik, kotizazioaren % 70a soilik jaso ahal zuten. Aurreko ataletan aztertu ahal izan dugun moduan, langile gehienek kotizazioa ez dator bat kotizatu beharko luketenearekin. Beraz, laguntza jaso ahal izan duten langile asko eta askok ere zego-kiena baino gutxiago jaso dute.

Bestalde, etxeko langileak Lan Arriskuen Prebentzio Legetik kanpo daudela gogoratu behar dugu. Ez dago beraiantz inolako jarraibide eta neurri espezifikorik, ezta enplegatzailearentzat betebeharrak zehatzik ere, 1620/2011 Errege Dekretuak ezarritako langileen osasunaren berme orokorretik haratago. Etxeko eta zaintza lanak egiten dituzte, pertsonekin etengabe kontaktuan, eta ez du inolako protokolo edo neurririk ezarri langile horien osasuna bermatu ahal izateko, jendarte osoari emandako aholkuek gain (metro bateko tartea uztea pertsonen artean, bestelako babeserako materialak erabiltzea, eskuak maiz garbitzea...).

Almudena Escalona. Etxeko langilea. Kanpoko gisa lanean. Orduka egiten du lan. Koronabirusarengatik hartu dituzten neurrien ondorioz sorturiko egoerari buruz galdetzean: «eskularruak nik dakartzat, ez dago maskararik, ez ezer. Langileontzat ez dago inongo argibiderik, saiatu arren ezinezkoa da seguritate-tartea zaintzea.»

Konfinamenduak egoera latzak utzi ditu etxeko langileen artean. Kaleratzeak, derrigorrez hartutako oporraldiak, barneko langileen kasuan 24 orduz 7 egun astean enplegatzailearen etxean...

Rosa. Etxeko langilea. Langile egoiliar bezala lan egin zuen. Orain orduka lan egiten du, kanpoan: «Orain osasun krisiagatik nago oporretan. Oraingo ez naute kaleratu baina ez dakit etxe batean ordainduko didaten, oporrak hartzeko esan didate.»

2020ko martxoaren 24an Estatu Espainiarreko etxeko langileen zenbait elkartek (tartean Euskal Herriko Malen-etxea eta 'Trabajadoras No Domesticadas') inkesta bat jarri zuten abian konfinamenduak eragindako egoerak neurtu nahian. Ehun-ka erantzun jaso zituzten, horietatik asko Euskal Herriko etxeko langileenak. Josefina Roco, 'Trabajadoras No Domesticadas'-eko kidea: «*Euskal Herrian inkesta honetatik ateratzen zaigun argazkia ez da beste lekuetatik desberdintzen tamalez.*»

Lan harremana eten zien langile askori, beste asko kaleratuak izan ziren inolako kalteordainik jaso gabe. Askok behartutako oporrak hartu behar izan zituzten. Lanean jarraitu zuten gehienei, konfinamenduak lan karga areagotu zien, ordainean ezer eskaini gabe. Barneko langileei ere konfinamendu egoerak dagoeneko jasaten zituzten zapalkuntzak areagotu zituen: enplegatzailearen etxetik ezin atera geratu ziren asko, euren atsedena ez ziren errespetatzen, ez zeukaten beharrezko higie-ne baldintzarik, ez zitzairen euren babes eta zaintza propioa onartzen, euren senideak zaintzeko arazoak zituzten...

HITZARMEN BATEN BEHARRA GERO ETA AGERIKOAGOA

Esan bezala, etxeko langileen % 30 inguruk ezkutuko ekonomian lan egiten du. Horren ondorioz, beraien zaugarritasun egoera are gehiago handitzen da eta kasu hauetan legea ez betetzeko aukerak zabaltzen dira.

TNDren txostenean elkarrizketatu dituzten etxeko langile guztiek lana aldatu nahiko lukete. Ez da bizi osorako lan bezala ulertzen. Pixkanaka, mailaz maila lan baldintzak hobetzen joan daitekeen lanpostu bat bezala ikusten dute, azkenean sektorez aldatzeko.

22

Bizitza sostengatzen duen oinarritzko lan batez ari gara, etxeko lan eta zaintza lanez. Elkar zaintzeko beharra dugula eta izango dugula onartzen dugun momentuan, lan hauei dagokien balio eta lekua ematea ezinbestekoa izango da. Baina oraingoz, etxeko langileek ikusezin, zapaldurik, eskubiderik gabe jarraitzen dute gure bizitza sostengatzen duten bitartean.

Pertsonak zaugarriak gara. Geroz eta jendarte zaharragoa dugu, menpekoagoa, zaintza behar izugarriak ditugu eta, denbora aurrera joan ahala, behar horiek handitzen joango dira. Era berean, zaintzaren ardura familien gain jartzen da eta gero eta familia sare murriztagoak ditugu. Beraz, argi dago bi aukera ditugula egoera honen aurrean: zaintza krisia onartu eta ardura publiko zein kolektibotik irtenbideak sortu edota etxeko langileen XXI. mendeko esklabismo sisteman sakondu.

Gaur egun, etxeko langileen eta zaintzaren esparruan eskumenak dituzten instituzioek euren ardurak saihesten dituzte. Espainiako Gobernuak, ahalmen legegilea duen aldetik, eta jaurlaritzak, lan ikuskaritza eta Osalanen bidez, egin beharko lituzkeen lanak ez dira gutxienez ere iristen; Nafarroan ikuskaritza horrek Espainiako Gobernuaren eskumena izaten jarraitzen du. Frantzia eskumen guztiak Gobernu Zentralaren esku daude. Guk pertsonen zaintza sistemaren antolakuntzaren erdigunean kokatzea aldarrikatzen dugu, langile guztien duintasuna eta zainduak izateko eskubidea bermatuko duen jendartea eraiki ahal izateko. Horretarako ezinbestekoa izango da Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren eraikuntza urratsak ematea.

Hori lortu ahal izateko, langileon antolaketa beharrezkoa da. Antolaketarako zailtasunak dituen sektore bat da hau, bakarrik lan egiten baitute, bakoitzak etxe batean, eta enplegatzaile desberdin batentzat. Baina etxeko langileak historikoki egon dira antolatuta, antolatzeko gaitasun hori erakutsi digute, baina ez sindikatueta. Sindikatuak ez gara izan etxeko langileak antolatzeko tresna orain arte, eta orain zor historiko hori gainditzeko erronka daukagu.

Lucia, etxeko langilea, orduka lan egiten du kanpoko langile bezala. Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko kide da. «*Gu bakarrik gaude lanean, atea itxi eta zure nagusiarekin zaude, bakarrik. Gure artean sareak eraikitzea ezinbestekoa da.*» «*2012 arte ez ginen existitu ere egiten. Ordutik aurrera pittin bat ikusarazten hasi ginen. Eta sindikatuak orain ari dira erreazionatzen.*»

Azken kongresuan hartu genituen erabakien ondorioz, gure eredu sindikal tradizionala gainditzeko eta etxeko langileek sindikalgintza euren tresna gisa ulertzeko lanean ari da LAB. Sindikatuaren egitura aldatzen ari gara etxeko langileak bertan xertatzeko, helburu argi batekin: langile horien lan eta bizi baldintzak hobetzea.

Guk langileei euren egoera aldatzeko giltzak eman dizkiegu: negoziazio kolektiboaren ondorioz euren lan baldintzak hobetzea. Etxeko langileekin eskuz esku, zaintza erdigunean kokatu eta euren lan eta bizi baldintzak borrokatzeko bidea eraikiko dugu.

Horregatik, bide horretan eman beharreko urrats gisa, etxeko langileentzat lan-hitzarmena proposatu dugu EAEn. Modu horretan, euren lan baldintzak hobetuko ditugu, sektoreak urtez urtez jasan duen diskriminazio egoera gainditzen hasiz. Gainera, etxeko langileentzat proposatzen dugun hitzarmen kolektiboak berezitasun espezifikoak izan beharko ditu, izan ere, dagozkien eskubideen urraketak modu sistematikoan gertatzen dira eta legediak hainbat gai ez ditu erregulatzen etxeko langileentzat.

Hori guztia aintzat hartuta, EAeko etxeko langileen lan-hitzarmenak gutxieneko hiru ardatz hauei erantzun beharko die:

- Araudiak erregulatzen ez dituen gaiak erregulatzea (hala nola, laneko osasuna, laneko denboraren inguruko erregistroa...)
- Langileen Estatutuan, etxeko langileen erregimen berezian edota ezartzen den bestelako araudian jasotzen diren oinarrizko eskubideen hobekuntza.
- Hitzarmen Kolektiboan jasotzen dena betetzen dela bermatzea.

LABek erronka honi heldu dio dagoeneko. Borroka honetan orain arteko aliantzei eutsi eta berriak garatzeko tresna eta baliabideak jarriko ditugu martxan. Mugimendu feminista, etxeko langileen elkarteak, langileak... borroka honetan denok gara beharrezko. Bide berriak urratuz, eskuz-esku, urratsez urrats, garaipen txikiak lortuz helburu handien bidean, horixe izango da gure ibilbidea. LABek erronka honi heldu dio dagoeneko. Borroka honetan orain arteko aliantzei eutsi eta berriak garatzeko tresna eta baliabideak jarriko ditugu martxan. Mugimendu feminista, etxeko langileen elkarteak, langileak... borroka honetan denok gara beharrezko. Bide berriak urratuz, eskuz-esku, urratsez urrats, garaipen txikiak lortuz helburu handien bidean, horixe izango da gure ibilbidea.

